

## Hondakin berezien bilketarako “BIRZIKLAPEN ETXOLAK” jarri dira eskualdean

*Hondakin berezien bilketa zerbitzua hobetzea eta horien birziklatze-tasa handitzea da Baztango Udalak eta Bortzirietako eta Malerrekako mankomunitateek martxan paratu duten zerbitzu berri honen helburua.*

Baztango Udalak eta Bortzirietako eta Malerrekako mankomunitateek hondakin bilketa zerbitzua hobetzen jarraitzeko helburuz, orain arte eskaintzen zen hondakin berezien bilketa zerbitzu mugikorra indartu eta **“Birziklapen etxolak”** deitu dituzten bilketa puntu finkoak jarri dituzte. Modu honetan, kamioia noiz etorriko zain egon beharrean, herritarrek hondakin bereziak edozein momentutan bota ahal izanen dituzte.

Etxetxo hauek etxola zaharberituak dira, berrerabiliak eta, erran bezala, finkoak izanen dira, kokatu diren lekuan egonen baitira jendeak erabil ditzala. Oraingoz Baztanen eta Bortzirietan jarri badira ere, urtea akitu baino lehen Malerrekako ere berea izanen dutela aurreikusten da.



Baztango birziklapen etxola



Bortzirietako birziklapen etxola

Baztango etxola Elizondon jarri da, Jaime Urrutia karrikaren hasieran, Merkatuko Plazan, esne makinaren eta arropa edukiontziaeren ondoan; Bortzirietakoa berriz, Etxalarren, herri sarrerako aparkalekuan. Beraz, bi herri horietan orain arteko kamioi bidezko zerbitzu mugikorra desagertuko da.


Etxolak hainbat leihatila ditu eta horietako bakoitzean hondakin mota bat biltzeko irudia eta testua agertzen dira. Hauek dira etxolan bota daitezkeen hondakinak: bateriak, gasolio eta olio filtroak, bonbilak eta fluoreszenteak, erradiografiak, pilak, fitosanitarioak, garbiketa produktuak, sakeleko telefonoak edo mugikorak, tonerrak eta inprimagailuen tinta-kartutxoak, gailu elektrikoak eta elektronikoak, olio minerala eta landare olioak (plastikozko pote itxietan), kutsatutako ontziak, pinturak, CD eta DVDak, aerosolak edo espraiak, eta kolak eta silikonak.

Orain arte Baztan eta Malerrekan hilean behin eta Bortzirietan hilean bitan ibiltzen zen kamioiak (hondakin berezien bilketa puntu mugikorak) zerbitzu bera egiten jarraituko du Malerrekan eta Bortzirietan (Etxalarren izan ezik); Baztanen aldiz, moldaketa tiki batzuk egin dira hemendik urte akabaila arteko zerbitzuan. Hau izanen da datozen hileotan kamioiak, hondakin berezien bilketa puntu mugikorak, egingen duen ibilbidea eta ordutegia:

| <b>HONDAKIN BEREZIEN BILKETA MUGIKORRA BAZTANEN</b> |               |                  |
|---|---------------|------------------|
| <b>EGUNA</b>  | <b>HERRIA</b> | <b>ORDUTEGIA</b> |
| <b>IRAILAK 5/ ABENDUAK 5</b>                        | Gartzain      | 9:35- 10:35      |
|   | Lekaroz       | 10:45- 11:45     |
|   | Arraioz       | 11:55- 13:00     |
|   | Oronoz        | 13:10- 15:00     |
| <b>URRIAK 3</b>                                     | Arizkun       | 9:35- 11:00      |
|   | Erratzu       | 11:10- 12:30     |
|   | Amaiur        | 12:40- 13:50     |
|   | Azpilkueta    | 14:00- 15:00     |
| <b>AZAROAK 7</b>                                    | Irurita       | 9:35- 11:00      |
|   | Ziga          | 11:10- 12:10     |
|   | Aniz          | 12:20- 13:20     |
|   | Berroeta      | 13:30- 14:30     |
|   | Almandoz      | 14:40- 15:00     |



**Bortzirietako**  
Hiri-Hondakinen Mankomunitatea



**Baztango**  
Udala



**Malerrekako**  
Mankomunitatea

Baztango Udalak eta Bortzirietako eta Malerrekako mankomunitateek herritarrei etxola berriak erabiltzeko gonbita luzatzen diete, hondakinen kudeaketan denon esku-hartzea beharrezkoa delako.

## **BIRZIKLATU, gauza bakoitza bere tokian!**

2015eko abuztuaren 21ean

Informazio gehiago: [hondakinak@baztan.eus](mailto:hondakinak@baztan.eus) 948 580 006 (Miren)

[txomin@bortziriakzabor.com](mailto:txomin@bortziriakzabor.com) 670522975 (Txomin)